

Lingüística y Filología

J.M. LEKUONA, *Hargiaren eskolan*. San Sebastián, Ed. Erein, 1979, 104 págs., I.S.B.N. 84-85324-33-1.

Liburu hau bigarren olerki-sorta da J.M. Lekuonaren poemagintzan. Lehen alea, «Muga be-roak» zeritzana, orain dela sei urte plazaratu zen. Idazlan herek hiru aro bereizten zituen lekonaren ibilpide poetikoan. Gaurko honek, berriaz, laugarren marka dezake oiartzuarraren poesigintzan.

«Hargiaren eskolan» poema-liburu honek elkarrekin ezer ikustekorik ez duten bi lan dakartzi. Bata eta bestea oso desberdinak dira gaiaz, egituraz, dinamikaz.

OIHU ILUNAK ESPIRALEAN «multzo estetiko elementalen estudioa dateke, giza azpilduren ikerketa poetikoa». Gorputz atalak hartzen ditu egileak multzo estetiko horien gai. Zehazki esanik, hizilekua, eskua, ile-adatsa, haragizko estatua eta begitartea. Elkarren arteko komunikapenean gorputz atalek duten esanahia eta indarra isladatzen dira.

LIBURUEN KARROXA, bestalde, «kultur mugimenduen ikusmolde satirikoa dakarren» antzerki antzeko poema da; jendaurreko azpi-komentarioen aurkezpen satirikoa. Herri teatroaren moldea du bere egitura nagusia, bere molde literarioa. Bertan aipatzen diren liburu eta kultur taldeak hauek dira: «On Kixote Mantxako», Arestiren «Poema bilduma», «Euskal idazleak, gaur», «Odo-laren mintzoa» eta «Liburu Zuria».

J.L.

TXILLARDEGI: *Euskal Gramatika*
Ediciones Vascas. San Sebastián, 1979, 453 págs., I.S.B.N. 84-85288-23-8

Durango-ko «Azoka»n «aipamen bereziaz» aurtengo Azaroan Saritua, eta lehenengo argitaraketa (6.000 ale) antxu agortua, ondoko egunotan jarriko da salgai. «Euskal Gramatika» honen bigarren argitaraketa.

Liburuak 40 kapitulu ditu, eta euskaraz idatzia dago (nahiz adibideen itzulpena eta kapituluaren laburtzapena beti bai frantsesez bai gaztelainiaz ere etorri).

Euskaltzaindiak hartuak dituen erabakien arabera egina, «Euskara Batua» ren aldeko lana da. Baina erabakizun dauden puntuetan, egileak bere erizpide pertsonalak eman ditu, nahiz kasu hauetan argiro azaldu erabaki ofizialak zein diren eta zein ez diren.

Zenbait sailetan (aditzaren aspektuaz, esate baterako) gauza berri xamarrik aurki badaiteke ere, liburuak puntu seguruak ditu helburu; eta, lau koloretan emana, betekizun didaktikoa du bereziki.

J.L.A.

TXILLARDEGI: *Fonologiaren Matematikuntza*, San Sebastián.
Argitaratzailea, U.Z.E.I., 1979, 75 págs.

1979-ko Udako Unibertsitatean Fonologiari buruz eman ziren klaseei buruz prestatua, liburu honek 8 kapitulu eta hiztegi hirukoitz bat ditu.